



#### **4. Udazkeneko Argazki Lehiaketa, ASPANOGI- Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartearen aldekoa, ArtGazki elkarteak 2018an antolatutakoa.**

Oinarriak:

- Udazkena Euskal Herrian** da argazkien gaia, bai basoetako paisaiak, ibaiak, itsasoak nola hiri eta landa ingurugirokoak.
- Parte hartzea libre da eta doan. Elkarte antolatzaileko kideek parte hartu ahal dute, baita zuzendaritzako kideek ere, epaimahaiko kide izan ezean.
- Hiru argazki bidali ahal izago dira gehienez ere, helbide honetara bidali ere: [lehiaketak@artgazki.org](mailto:lehiaketak@artgazki.org).
- Bidaliko diren argazkiek 240ppp eduki beharko dituzte gutxienez; eta haien alderik luzeenak, gehienez 50 cm, kamararen jatorrizko tamainuan.
- Argazkiak koloretakoak zein zuri-beltzezkoak izan daitezke.
- Argazkiekin batera datu hauek bidaliko dira: egilearen izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa, argazki bakoitzaren izenburua eta non dagoen eginda.
- Lehiaketara aurkeztutako argazkien egileak eurak direla bermatu beharko dute partaideek.
- Aurkeztutako argazkiek ezin izango dute inprimatuta eraman ez egilearen izena ez inolako anagramarik.
- Ezin izango dira aurkeztu beste lehiaketa batera aurkeztutako argazkiak, ez eta komunikabide digitaletan edo paperezkoetan argitaratutakoak ere.
- Azaroaren 21an, asteazkena, 24:00etan amaituko da argazkiak jasotzeko epea.
- Azaroaren 25an, igandea, jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia, bai zein diren erakusketako argazkiak bai hiru argazki irabazleak.

-Berriaz debekatuta daude fotomuntaketa bidez egindako irudiak edo argazki bat baino gehiagorekin osatutakoak. Epaimahaiak baztertu ahal izango ditu bere iritziz manipulaturik dauden argazkiak, hala nola, irudiaren elementu bisualak erantsi, kendu edo lekuz aldatuz osatutakoak. Ez dira onartuko argazkiaren jatorrizko formatoa aldatzen duten errekorreak.

-Argazkigintzako eta irudigintzako pertsona kualifikatuek osatuko dute epaimahaiak, eta irizpide hauek erabiliko ditu lanak baloratzeko orduan: teknika, originaltasuna, estetika eta kreatibitatea.

-Oinarri hauekin bat ez datozen lanak baztertu eta edozein sari hutsik uzteko eskubidea du epaimahaiak.

-Argazkirik onenak Arrasateko hainbat establezimendutan erakutsiko dira eta, ondoren, Kulturateko erakusketa aretoan. Lanak salgai jarriko dira, eta jasotako dirua ASPANOGI- Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteari emango zaio.

## ARGAZKIEN GAINEKO ESKUBIDEAK

-Antolatzaileek eta babesleek irudiak erabiltzeko eskubidea izango dute –beste batzuek ere eduki ahala dute–, informazioa zabaldu edo ekintzaren bat sustatze aldera, eta lehiaketara aurkeztutako edozein argazki erakutsi, beti ere egilearen izena azalduta.

Sariak:

1. saria: garaikurra eta 300 €.

2. saria: garaikurra eta 200 €.

3. saria: garaikurra eta 100€.

Publikoaren saria: mendiko materiala, Columbus outdoor enpresak emandakoa.

2019ko urtarrilaren 27an, igandea, izango da sari banaketa. Argazkiren bat erosi dutenek ere egun horretan jaso ahal izango dituzte.